



Kaleak dantza saioz blai

TOLOSA ▶ Sei aisialdi taldeetako 1.000 lagun inguru herriko kaleetan dantzan ikusteko aukera izan zen atzokoan

ASTEARTEA ▶ Karrozak eta konpartsak irtengo dira gaur berriro kalera; musika eta 'Sardinaren hileta' izango dira gauean ▶ 4-5



Goian, Kirikiño aisialdi taldeko kideak dantzan. Beheko argazkian, Kazkabarra taldekoak, 25. urtemuga ospatuz, Atsedena taldekoen modura. NAIARA GARZIA

TOLOSA ▶

Zezen-plaza jendez gainezka

Txarangen atzetik jende uholdea sartu zen zezen festara ▶ 6

ALEGIALDEA ▶

Gonzalez Txabarri Gipuzkoako ahaldun nagusiaren bisita izan dute Abaltzisketan eta Orendainen

Aldundiak diruz lagundu dituen lanen emaitzak gertutik ikusteko bi herrietako alkateen gonbidapena jaso zuen ▶ 7

**XABI GOMEZ ▶
INAUTERIZALEA**

«Askatasuna ematen dute Inauteriek»

Era desberdinetan bizi izan ditu txikitatik Inauteriak ▶ 2



Udaberri Dantzari Taldea, 1973ko Inauterietan

ARGAZKI ZAHARRA ▶ Udaberri Dantzari Taldearen konpartsa 1973ean. Santa Agedarako autobusa atera zuten. Gaietan, txarangila: Jose Manuel Agirre eta Xabier Zelaia dultzainariak, soinuarekin Tarragona, Enrique Pineda,

bonboarekin Felipe Aierbe, txindatekin Josu Agirrezabala, oinez Iñaki Salvador... Tolosako Inauterietan parte-hartze zuzena izan du aurten 10 urte bete dituen dantzari taldeak, karrozak eta konpartsak ateraz. HITZA

XABI GOMEZ ▶ INAUTERIZALEA

«Askatasuna ematen duten derrigorrezko festa dira Inauteriak»

Iñigo Terradillos. Tolosarra jaitzez, txiki-txikitatik bizi izan ditu Inauteriak. Era oso desberdinetan, gainera: gurasoe-kin lehendabizi, koadrilarekin ondoren, eta aisialdi taldeen baitan gero. 26 urteetan ez du inoiz hutsik egin jai berezi hauetan.

Inauteriak: zer esan nahi dute zuretzat?

Bizi behar den urteko garaia dira, askatasuna ematen duten derrigorrezko festa.

Nola ezagutu zenituen Inauteriak?

Txiki-txikitatik ezagutu izan ditut, urtero izan bainaiz Tolosan garai berezi hauetan. Gurasoen karrozan irteten nintzen oso txikia nintzela; urtero egiten zuten karroza, eta ni bezala, gainerako gaztetxoak karroza-
ren barruan egoten ginen. Ondoren, koadrilan hasi nintzen irteten, eta gero, lagunekin batera, aisialdi taldean ere hasi nintzen ateratzen. Beraz, era desberdinetan gozatu ahal izan ditut.

Gogoan duzun gertaera berrezin bat.

Ez nuke jakingo bat aukeratzeko. Urtero, bukatzen direnak iruditzen zaizkit onenak, oso sentsazio onarekin uzten bainaute. Urtean urtekoak, beraz.

Tolosarrak inauterizale behar al du izatez?

Oso erraza da izatea, izan ere, aukera guztiak dituzu gaztea zarenetik inauterizale izateko, bai etxean edo ikastetxean edota kalean ikusten duzunarekin.

Karrozak eta konpartsak.

Horiek gabe Inauterietan hutsune handia izango lukete. Herri-tarren komentario gehien sortzen dutenak dira, festako erdigunea, gero zuk festa zure egin arren.

Nola definituko zenizkioke Inauterietan kanpotik datorren bat?

Ez ditut beste Inauterietan eza gutuzten, dena den, esango nuke ez dutela zerikusirik. Era berezian bizi dira, nahasmenean baina ordenaren barruan.



HITZA

Mozorrorik onena? Eta lehenengoa?

Ez nuke jakingo, urtero urtekoarekin izaten dut ilusioa. Ori-tzen dudana lehenengo mozo-
rroa David gnomoarena izan zen.

Nabaritu al duzu aldaketarik Inauterietan azken urteetan?

TRAGO BATEAN ▶

Egunik onena? Guztiak, bai-na aukeratu behar bada, Ostegun Gizona eta Zaldunita aukeratu nitzuke.

Mozorro bat? Beti izan dut indioz mozorrotzeko gogoia, eta uste dut aurten beteko dudala nahi hori.

Gaua ala eguna? Zalantzarik gabe, gaua eta eguna.

Festa bat. Inauteriak lehendabizi, eta bigarren postuan San Juan jaiak jarriko nitzuke.

Hausterre Egunean. Egun osoan lo egiteko edo des-kantsatzeko baliatu ohi dut. **Jai egun guztietan indarrez mantentzeko zer egiten duzu?**

Egunak antolatzen jakin behar da. Egun batzutan bazkaltzeko ogitartekoa jaten duzu, eta afaltzeko, ondo jan behar duzu. Une lasaiak ere aurkitu behar dituzu, des-kantsatzeko.

Nire ikuspuntutik ez dute aldaketarik izan, erritmo berean ikusi izan ditut nik beti. Baina, hori bai, ni gaztea naiz, eta ziur nik baino urte gehiago dituztenek desberdintasun nabaritu-
tuko izan dituztela garai batekoetatik.

PASADIZOA ▶

Eraso guztien gainetik. Era guztietako erasoak izan dituzte Tolosako Inauterietan eta denak gaindituz iritsi dira bizirik gaur egun arte. Lehenengo erasoak Primo de Riveraren diktadura garaian izan zen. Agintariak debekatu nahi izan zuten, baina herri osoa altxatu zen debeku haren aurka. Erabateko greba izan zen. Geroztik parroko bat saiatu zen debekatzeko, metaleko greba handia izan zen eta atentatuak izan dira, baina inoiz ez dira galdutakoak.

GAURKO EGITARUA ▶

06:00. Herriko txistulari bandak alborada joko du udaletxeko arkupeetan, Berdura plazan eta Gorriti plazan.

08:00. Pattar zezena zezen-plazan. Ondoren, kalejira.

10:30. Plaza Berrian sokamuturra, Kabila txarangak alaituta.

11:30. Karrozen eta konpartsen irteera.

15:45. Herriko txistulari bandak, ohiturazko ibilbidea eginez, *Idiarena* pieza joko du.

16:00. Kalejira Aiz-Orratz, Txapel Haundi eta San Esteban txarangekin, Plaza Zaharretik abiatuta, zezen-plazaraino.

16:30. Zezenak zezen-plazan; txarangak eta txistulariak ariko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren, kalejira.

19:00. Dantzaldia Berdura Plazan, Aiz-Orratz, Txapel Haundi eta San Esteban txarangekin.

23:30. Incansables Zaharrak txarangaren irteera.

24:00. *Sardinaren hileta* konpartsen irteera Gure Txokoa elkartetik.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inauterietako argazkiak. Gure webguneak egunez egun Inauterietako argazkiak ikusteko aukera eskaintzen du, *Iru dietan* izeneko atalean.



Astelenitako une bat. N.G



SOKAMUTURRA ▶



Jolasean. Plaza Berriko hainbat elementu aprobetxatu ziren zezenetik gordetzeko. i.e.



Kontuz! Ikusi gabe, bigantxaren presentzia somatzen da. i.e.



Hemen dela... Korrika saio batzuk ikusi ziren atzokoan. i.e.



Alturan salbu? Gazteek, leku altuenetara igo arren, azken bigantxa handiarekin kontuz ibili behar izan zuten. i.e.

GAUEKO PARRANDA ▶

Zoramena areagotzen denean

Herenegun gauean euria protagonista izan bazen ere, jende ugari irten zen kalera parranda egitera

ERREDAKZIOA

Egunean zehar txantxoak edota karrozak jendaurrean erakusteko unea izaten da; eta baita besteen moztarok ikusi eta dibertigarriak badira irribarrea sortu, eta hurrengo urterako ideia berriak ateratzeko ere. Azken batean, egunez, lasai asko, giroaz gozatzeko aukera izaten da.

Gauetz bestelakoak izaten dira kontuak. Mozorroek, burrek eta giro alaiak jarraitzen dute, baina zoramena are handiagoa izan ohi da. Herenegun gauean, esaterako, euria izan zen protagonistetako bat; hala ere, une horietan esan ohi den bezala, jendeak aurpegi alai jarri zion euriari. Jende ugari atera zen kalera afalostean, eta goizalderarte txarangen, tabernen nahiz txosnen giroan musgildu zen.



Txarangen erritmora jendea dantzan kaleetan. i.t.



Tabernen barrualdean nahiz kanpoaldean, jendea parrandan. i.t.

Ez al zara EAJzale? Ongietorri, sartu.

www.eginbehardugu.com



www.eaj-pnv.com



ASIALDI TALDEAK ▶

Astelenitan, dantza nagusi

Tolosako eta Ibarroko sei aisialdi taldeak, 1.000 lagun inguru, Tolosako kaleetan barrena ibili ziren atzo egun osoan zehar, asteetan entseatutako dantzak jendeari erakusteko asmoz



Kirikiño. Ameriketako irudi mitikoetan oinarrituz, Far West-ean, alegia, lau moztoro ezberdinekin alera ziren: indioak, bakeoak, kabaretariak eta sheriffak nahasi zituzten aisialde talde honetako 283 kideek. I. TERRELL/OLAS



Tenttek. Teletistak Fama leialesian oinarrituta eta dantza eskola baitirien, dantza ezberdinak dantzatu zituzten 160 lagunek, moztoro ezberdinekin: bikomak balezat jantzi ziren, tarlekak leialesian bezala, eta helduenak, berriak, areto dantzak aukeratu zituzten. K. OJAS

NAIARA GARCIA - IMANOL GARCIA

Karrozen egun handiaren ondoren aisialdi taldeen ikuskitzuen txanda iritsi zen atzo. Horretarako eta urtero bezala, 11:30ean abiatu ziren 6 aisialdi taldeak eta egun osoan zehar Tolosako kaleak alatu zituzten. Hamabeste emesatu ondoren, eta beti ere ongi pasatzeko helburuarekin, Tolosako kaleetara hurbildu zirenei haien ikuskitzuekin gozatzeko aukera paregabea eskaini zieten parte hartu zuten ia 1.000 ikasleek. 11:30ean alera ziren eta bietan ere Rondilla eta San Frantzisko kaleetan zentratu zen atzo aisialde taldeek eskaintutako festa. Honela, Tolosa beste behin erabat eraldatu eta ohiko kaleak istorio ezberdinetan zehar bidaiatzeko atziko paregabean ikalatu ziren. Karriko piratak, indioak eta bakeoak... izan ziren atzo ikusgai.

Moztorroak

Laskorain ikastolako 25 urte bete dituzten ikasleek honetako irudi den Argitxoz alera ziren ikasleek honetako aisialdi taldeko 300 lagunak. Beste batzuk, berriak, moztoro bat baino gehiago aukeratu zituzten haien emantaldia osatzeko. Tenttek-en konpartsaen ka-

iragarki laburrak ▶

LANA
Harreragilea. Udaletarako 943 44 45 66.
Gidaria: Gidaria behar da erakunde publikoentzako. 943 44 45 66.
Celbista: martelena, gidariak, langileak, sukaldaritza langileak... behar dira lanpostu finantzatutako 943 32 66 63.
Saltzaileak: basozainak, ertzaizta, udaltzaileak. Erakunde publikoentzako hainbat denaldia. 943 32 66 63.
Hezkuntza: Eusko Jaurlaritzaren Berezitako denaldia. 1172 lanpostu. Gorpuz-hezkuntza, hezkuntza, lehen hezkuntza, ingelesa, euskara, musika, ALE, PT eta abarbidaritza. Informazioa: 943 32 66 63.
SALGA!
Eguzia: Sutarako plaza eguzi lehorra salgai. Egoera erabagatzen da. 615 75 57 62.



Atsedena. Aisialdi talde honetako 100 lagunetatik batzuk galaz jantzi ziren taldearen 25. urteurrena ospatzeko, eta beste batzuk aurreko urteko moztoroak aukeratu zituzten. K. OJAS



Kazkabarra. Hauek, berriak, Argitxoz alera ziren, ikasleekin euskararen alde jarduten den pertsonaia. 300 lagun ziren. K. OJAS



Txiribitu. Jogurtaz alera ziren Txiribituko 35 lagunak. K. OJAS



San Bernardo. Talde honetako 105 lagunak pirataz alera ziren. K. OJAS

ELECTRICIDAD KLUSTONDO

- Argitapena
- Inst. Elektrikoak
- Aleasen automatikak
- Antena ikusgaitzak eta bakarrak
- Musika ardiabentzenentzat instalazioak, etxebizitza, dendak...

Irre Auzoa, 4 • TOLOSA • Tel.: 943 67 23 00
Nafarroa etorb. 13 • Tel.: 943 88 92 71 • BEASAIN

Sam Kartazalak Poltsak

Usatub auzoa, 126 • 20400 TOLOSA
Tel.: 943 67 40 00 • Faxa: 943 67 55 44 • sam@sam-sobres.com

FESTAK ONDO PASA!

TOLARGI
Tolosako argia. Zuzen. La luz de Tolosa. Tu luz.

Pablo Gorosabel kalea, 34 B. • TOLOSA
Tel.: 943 65 00 16 • Faxa: 943 65 00 65
Telf.: matxurak: 910 44 00 00
E-posta: tolargi@tolargi.com
www.tolargi.com

TOLOSAGAJA
Tolosako energia. Zuzen. Energía de Tolosa. Tu energía

Arrostegietia, 18 • TOLOSA
Tel.: 943 67 53 20 • Faxa: 943 67 55 11

KATZA

PINTXOK - BOKATAK
ANOAK
PLATER KONBINATUAK

Plaza Berria, 6 • 20400 Tolosa
Tel.: 943 67 49 15

Dietetika eta Belardenda

ZAINBERRI

Pablo Gorosabel, 6 • Tel.: 943 65 21 86 • 20400 TOLOSA

Tolosaldea BUS S.L.

ibilgailuak • Ertetik Agurtoariak • Ikastetxeak Kirol taldeak

Tel. eta faxa: 943 650621 • mug.: 619 723 819 • Donostia Eto. 7 • TOLOSA

aldama_tapia
gohikulariak

Tel.: 943 65 03 75
Faxa: 943 65 52 06

Forum Etorbidea, 7 • 20400 TOLOSA. Gipuzkoan goibait@aldamatapia.com • www.aldamatapia.com

in

argiketarik & gertuenak
irakurketa & gertuenak
argitak

eskaintza & dezentziaz
orain & irakurketa
atzerak & sakabak

gremioen koordinazioa
Inauteri ondo pasa!

Nafarroa etorbidea, 13
20400 Tolosa
Tel.: 943 65 56 40

Luzkerain Ikastola
40 urterekin

Luzkerain taldea 25 urte osatuari zain

INAUTERIAK BERRIAGAIKID



ZEZENAK ▶

Zezen-plaza leporaino

Txarangen atzetik iritsi ziren konpartsek eta mozorroek kolorez bete zuten zezen-plaza atzokoan



Txaranga doinuek jende ugari eman zuten zezen-plazara. A.I.MAZ



Sarrerarik ez zutenek txarangen atzetik sartu beharra izan zuten. A.I.



Zezena izan zen barnean protagonista nagusia. A.I.



Konpartsak, zezen-plazan kolorea eta giroa jarri zuten, euren izenak ere txalo artean lau haizeetara zabaldu zituzten. A.I.



Kataluniar jatorriko giza gaztelua ere ikusi zen jende artean. A.I.

ASIER IMAZ

16:00etarako zezen-plazako ateak zabalik ziren, zabalik sarrerarik izanez gero noski, 2 euro balio zuten sarrera guztiak alde aurretik agortu baitziren atzokoan. Jende uholdeak ordea, txarangen doinuek gerturatu zituzten. Egun osoan zehar konpartsetan ibili zirenak, multzoka eta dantzan gerturatu ziren Inauterietako doinuek atzetik.

16:30ean iritsi zen lehen txaranga zezen plaza atarira. Atzetik ez oso urrun besteak helden joan ziren. Denek aurrean eta atzean jende andana zera matela, saltoka eta algaraka kantuak ezartzen zuten erritmoa jarraituz. Desfile moduan, bata bestearen atzetik plazara sartu eta buelta eman ondoren, kanpora irten ziren jarraitzailez inguratuz. Azkenik, bakoitzak harmailetan bere txokoa hartu eta bertatik jarraitu zuen giroa alaitzen.

17:00etan irten zen lehen zezena edo zezentxo. Harmailak lepo egon arren, ondar gainean azkar bakandu zen jendearen emana. Haseran bizi-bizi atera bazen ere adar haundidun zezentxo, ondoren nekearen edo inguruko zoramanearen eraginez, indar askorik gabe ibili zen alde batera eta bestera begira. Azkar jo zuten zezena barnera sartzeko pieza. Ateak zabaldu, joaldunak atera eta txalo artean bigarrenaren zain geratu zen jendea.

Zezen eta txaranga artean, jaiak aurrera jarraitu zuen bertara gerturatu ziren guztien gozamenerako. Nahiz eta zezenaren aurrean galtzei eusten nahiko lan izan zuenik ere izan.

Argi ikusi zen atzokoan, Tolosako Inauterietan zezen jolasak festaren parte direla, bai behintzat batzuentzat. Izan ere, zezenak gustoko ez eta kanpoan geratu zenik ere izan zen.

ELA Ondo pasa
Inauteriak!
EUSKAL SINDIKATUA

SEGUROS
BILBAO

Zumardi

aholkularitza integrala
inauteri zoriontsuak
opa dizkizugu

Laskurain, 8 behea • TOLOSA
Tel.: 943 65 18 78 • Tel./Faxa: 943 65 18 77

ONDO PASA
JAIAK!

Tel.: 943 65 07 84
Nafarroa etorb. 17
TOLOSA

AIXA
AHOLKULARITZA

Nominak - Kontabilitateak
Zergak - Autonomoak

Pablo Gorosabel, 4 - 1. esk
TOLOSA
Tel.: 943 65 03 03
Faxa.: 943 65 22 22
mjhuarte@euskalnet.net

"Xirimiri" Gora inauteriak!
Txokolategia
Errementari kalea, 40 Telef. 943 67 52 23
20400 Tolosa

MATXINA
Etxekotresna elektrikoaren konponketa
Laskurain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34

ALEGIALDEA ▶ HIRIGINTZA



Gonzalez Txabarri Abaltzisketako Josune Lasa zinegotzia eta Argitu Zabala alkatearekin —ezkerreko argazkian— eta Orendaingo Tomas Plazaola alkatea eta Jose Ignacio Aramendi zinegotziarekin. I. GARCIA



LEITZA ▶

Rekondok finala jokatu du larunbatean

Jon Rekondo aizkolari leitzarrik Ander Erasun bikotearekin batera Mugertza anai irabazi zien Urrezko Aizkolarien Binanako Txapelketako finalerdia gazteen mailan, igandean. Leitzako Amazabal pilotalekuan. Finala larunbat honetan izango dute, Azpeitian.

KIROLA ▶

TAKeko enaitza onak asteburuan

TAKeko enaitza onak lortu zituzten asteburuan Gipuzkoako Batelen Ligaxkan. Infantil-kadete mailako nesken A taldeak hirugarren postua lortu zuen eta Bkoek zortzigarrena. Infantil mutilen laugarren postua lortu zuten eta kadete mutiletan A taldeak bosgarren postua eta Bkoek zazpigarrena. Gazte-senior mailako nesken B taldeak lehen postua lortu zuen eta Akoek hirugarrena. Gazte mailan mutiletan A taldekoek bigarren postua eskuratu zuten eta Bkoek laugarrena.

POLITIKA ▶

LABek Etxeraten deialdiarekin bat egiten du

Euskal preso politikoen kolektiboa borrokan dagoela eta, Etxeratek ostiral eta larunbaterako iragarritako lanuzte eta mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten du LABek. Sindikatuak dei egiten die langileei 23an, 12:00etan, ordubeteko lanuzteetan eta mobilizazioetan parte har dezaten eta 24ean Bilboko manifestazio nazionalera joan daitezten.

Abaltzisketa eta Orendainera bisita egin du Txabarrik

Bi herrietan Aldundiaren diruarekin egindako lanak ikusi ditu ahaldu nagusiak

IMANOL GARCIA

Joxe Joan Gonzalez Txabarri ahaldu nagusiak Abaltzisketa eta Orendain bisitatu zituen atzo, bi herrietako udalek gonbidatuta. Foru Aldundiak diruz lagundu dituen lanak ikusten aritu zen bi udalerrietako alkate eta zinegotziekin, idazkariekin eta langileekin ere. Gonzalez Txabarrik Aldundiaren zereginetako bat «bi abiadurako Gipuzkoarik egon ez dadin» dela azaldu du eta bi herriek hitzartutakoa aurrera joan delako «pozik» agertu da.

Abaltzisketan egin diren azken lanak herriko plaza eta eskolaren arteko lotura egitea izan da, gune guzti hori urbanizatuz eta frontoiaren ondoan aparkalekuak eginez. Guztira 200.000 euroko aurrekontua izan dituzte lan horiek eta Aldundiak erdia baino zerbait gehiago jarri du.

Larraitzen egindako aparkalekuak ere bisitatu zituzten.



Larraitzen egin dituzten komuna berriak. I. GARCIA

Guztira 180 plaza egin dituzte, hiru gune ezberdinetan. Horrez gain eserlekuak ipini eta zuhaitzak landatu dituzte. 175.000 euroko aurrekontua zuten lan horiek eta guztia jarri du Aldundiak, Aralar Parke Naturalaren bitan egindako lanak

izan direlako eta horren ardura Aldundiak duelako. Bestalde, auzoan zeuden komun publikoak berritu eta beste berri batzuk egin dituzte ere. Argitegia ere berritu dute.

Argitu Zabala Abaltzisketako alkateak azaldu duenez,

«gustura gaude egin denarekin. Guretzak oso beharrezkoak dira Aldundiaren diru laguntzak horrelako lanak burutzeko». Hiru urte pasa dira Larraitzeko aparkalekuen eskaera egin, onartu eta obrak egin diren arte.

Orendaingo alkate Tomas Plazaolak ere Aldundiaren laguntza ezinbestekoa ikusten du hainbat proiektu burutzeko. «Etegarabe aritzen gara diru eske. Ez dugu dirurik inbertsiorik egin ahal izateko eta horregatik Aldundiaren laguntza behar dugu». Herrian egin den azken obra pilotalekuaren ingurunea urbanizatzea izan da. 60.000 euro inguruko aurrekontua izan du eta Aldundiak 35.000 euro inguru eman ditu. Legeladian ere beste lan batzuk egindituzte, haurtzaindegia eta zaharrentzako topagunea esaterako. Orain nekazari-tza beharretarako ur-biltegia berriaren proiektua dute esku artean.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
Tel.: 943 65 56 95



ZIRI-ZIRI ▶
JOXEMI SAIZAR

eSaMeSaka
bdlko yzt

Noelia zmoz? Sntitzn dt, bña grkoa SMS-z bdl bhrko yzut. Betin gde ta ezn dt HIRZARÑO jun. Urrti baita. Gañea ezn psa Trnnglotik: jndea, txrngak, krrzak... Znbat sms kbitzn dira ztbean? Bdaltn jngo nz ta bktkon bsta abstu. Eo hrrngo urtrko patrkako ktxrro brrri oitko1 ersi.

Txipi mndialk Betin. Earki sntzko ez do olkoik. Ta txrngea btkin sltzea. Bonbero adb. Oyntx pstu dia zre kdrikkok sltka, os anmtta. Tximista ta Dani prntzsaz jntzta blrria jtn. Ansio ptkmk ring-ra atea ny. Groxo agn. Gzgi da. Arggi. Kdrilko 2 dsgrtua, lgtzra jun dia. Nskak hsrrr.

Trnglora irxtia lrtu dgu. Brmdaskoa. Agrtu dia ardi giduak. Latxak. HIRZAKOK mzzrrta: bstokpa nfrta, txngrritxu, ltzrra, prntzsa albztrrra... Xrmnt dnak! Ta zu nn zea? Nrkn? Torkoza tbrnra?

Argitxo nbsioa. Amtsgztoa drdi. Tki gztitn daude. Znbt dia! Koboi, shrif, pirata, mfiioso... Zbt biaje Takolagna! Sko flta l da ostzko ztba?

Olsko para hrt ta Zrksira goaz bzklitzea. Edria aztu zyg! Ez diu kltrik ngo. Ondko blbotrrek grbntzuk eman dzkgte. Earrk! Ta pstrko mrrngk. Erdik arpgitan bktu dte. Bste erdik brrra. Nyko prr ndeu. Txptoa rtu ta kljiran goaz xxntra Trpaxtkin. Nby da tlrak diela. Oi da jtzea! 2kyn. 7 ta 14.kn geatupe sltka. Bhr aujtk zngo dteu. Ptt inda. Xknan trgoa rtu ta brrra. Xxkn yden bta du 1. Iprdia bxtan utzi dio. Byr goatko da.

Sko flta l da? Skulako lna da au. Ezn ostu zbea. Arrutzño pxk 1. Mbilko pila bktzn y zt. Bhrko zrbt pntstu bhrko deu, bstla...

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

GORA ETA BEHERA ▶ ERREDAKZIOA

Herritarren parte-hartzea Inauterietan

Argi dago herritarren parte-hartzea beharrezkoa dela Inauterietan diren bezalakoak izateko. Izan ere, zer izango lirakeke jai hauek inor mozarrotuko ez balitz, edota karrozarik eta konpartsarik ez balego? Horretaz gain, Inauteri giroa jartzeko oso garrantzitsua dira apaingarriak. Irudian, Berazubi auzoko atari bat bertako bi bizilagunek apainduta. i.r.



Lapurretak gertatzea, ohikoa

Tolosako Inauterietan jende ugari erakarri ohi dute urtero urtero. Hala, herria jendez lepo egon ohi da festak irauten duen egunetan. Jende asko izaten den lekuetan maiz gertatzen dira lapurretak, eta Tolosan ere izaten dira, eta aurtengoa ere ez da salbuespena. Herritar ugari salatuta dute lapurturetako, eta txosnagunekoez —irudian— ere jasan dute lapurretariak. N. G.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Silbestre eta Uxue Balerdi (Alegia). Elkarrekin Inauterietan disfrutatzen jarrai dezazuen. Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Ander Sanchez Otezabal (Amarotz). Gaur 2 urte. Aitona, osaba-izeba eta Umaren partetik zorionak.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza
TOLOSAN
Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza
LEITZAN
Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...